Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRIZAINGO SAILA

6128

EBAZPENA, 2008ko urriaren 10ekoa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetarako deia egiten duena.

Otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuak (martxoaren 6ko EHAA, 45. zk.) 15.1.b. artikuluan ezartzen du Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak, aldizka, Ertzaintzako funtzionarioek hizkuntza-eskakizunak egiaztatu ahal izateko probak egiteko deia zabaldu behar duela, eta horren ondorioz, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzearren euskara probak egiteko deialdia onestea, ebazpen honen 1. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

Bigarren artikulua.– Errekurtsoak.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen duena, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari, argitaratuta agertu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epearen barruan, edo zuzenean aurkatu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

Aukerako berraztertzeko errekurtsoa azalduz gero, hau espresuki erabaki arte, edo isiltasuna dela eta presuntziozko ezespena gertatu arte, ezin da jo bide jurisdikzionalera. Interesatuak bide jurisdikzionala aurkeztuz gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko du, Administrazio Auzigaietarako Epaitegi eskudunari zuzenduta, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epearen barruan, beti ere, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Era berean, deialdi honetan, Epaimahai Kalifikatzaileen jardueratik eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko organoetatik ondorioztatzen diren egintza administratibo guztiak aurkatu ahal izango dituzte interesatuek, administrazio prozedura erkideari buruzko arautegian ezarritako era eta kasuetan.

Arkaute, 2008ko urriaren 10a.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6128

RESOLUCIÓN de 10 de octubre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convocan pruebas para la acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza.

El Decreto 30/1998, de 24 de febrero (BOPV n.º 45 de 6 de marzo), en su artículo 15.1.b), establece que la Academia de Policía del País Vasco realizará convocatorias periódicas de pruebas para la acreditación del cumplimiento de los Perfiles Lingüísticos por los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza, y en su virtud,

RESUELVO:

Artículo primero.– Aprobar la convocatoria de pruebas de conocimiento de Euskera, destinados a la acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, de conformidad con las Bases que figuran en el anexo 1 de esta Resolución.

Artículo segundo.– Recursos.

Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán formular recurso potestativo de reposición ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación, o bien impugnarla directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Caso de interponer el recurso potestativo de reposición, no se podrá acudir a la vía jurisdiccional hasta que aquel sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta por silencio. Si la persona interesada optara por la impugnación jurisdiccional, procederá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo competente conforme al artículo 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Asimismo, los actos administrativos que deriven de la presente convocatoria, de la actuación de los Tribunales Calificadores o de los órganos de la Academia de Policía del País Vasco, podrán ser impugnados por las personas interesadas en los casos y en la forma prevista en la normativa reguladora del procedimiento administrativo común.

En Arkaute, a 10 de octubre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

1. ERANSKINA

OINARRIAK

I. KAPITULUA
DEIALDIAREN EREMUA ETA XEDEA

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko euskara probak egiteko deialdia egingo da. Horren edukia otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren eranskinean aurkitzen da.

Bigarrena.– Aplikazio eremua.

1.– Ertzaintzako karrerako funtzionarioek har dezakete parte probetan, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren aplikazio eremuan badaude eta XX. eta XXI. promozioei dagokien Ertzaintzaren praktiketako funtzionarioek ere.

2.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren ebazpenen bidez, hizkuntzaren gaitasuna hobetzeko ikastaroetarako deialdiak egin ziren Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat, hain zuzen, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko derrigorrezko epea ezarri zaienentzat. Ebazpen horien arabera, funtzionariook derrigorrez parte hartu beharko dute deialdi honetako probetan, probak egin aurretik parte hartutako ikastaroetan mailarik altuena lortu badute.

II. KAPITULUA
ERTZAINTZAREN 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO PROBAK

Hirugarrena.– Probak.

Probetan zenbait ariketa egin beharko dira, eta horien helburua izango da azterketariek duten euskararen ezagupena neurtzea. Probetan kontuan hartuko dira otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuko hizkuntza-gaitasunak, eta halaber, bat etorriko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako aginduekin.

Laugarrena.– Probek bi zati izango dituzte.

Lehen zatia.– Epaimahai Kalifikatzaileak erabakitako proba idatzia izango da. Zati honek helburu gisa soilik probei dagozkion bigarren zatian parte hartzeko gutxieneko euskera ezagutza maila egiaztatzea izango du. Proba honek gehienez 50 puntu izango ditu eta gainditu ahal izateko gutxienez 37 puntu atera beharko dira. Lehen zatia gainditzen ez duenak ezin izango du bigarren zatian parte hartu.

Bigarren zatia.– Epaimahai Kalifikatzaileak erabakitako ahozkoaren ulermena, irakurritakoaren ulermena, mintzamena eta idazmena neurtzeko ariketak izango dira. Proba bakoitza «gai» edo «ez gai» baloratuko da. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izateko, azterketa-

ANEXO 1

BASES

CAPÍTULO I
OBJETO Y AMBITO DE LA CONVOCATORIA

Primera.– Objeto de la convocatoria.

Se convocan pruebas para la acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, cuyo contenido se expresa en el anexo al Decreto 30/1998, de 24 de febrero.

Segunda.– Ámbito de aplicación.

1.– Podrán participar en estas pruebas los funcionarios y funcionarias de carrera de la Ertzaintza, dentro del ámbito de aplicación del Decreto 30/1998, de 24 de febrero y los funcionarios en prácticas pertenecientes a la XX y XXI promoción de la Ertzaintza.

2.– De conformidad con las Resoluciones de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco por las que se convocan Cursos de Capacitación Lingüística para funcionarios y funcionarias de carrera de la Ertzaintza a los que se les ha asignado fecha de preceptividad en el cumplimiento del perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza, que alcancen el nivel máximo de conocimiento de euskera que se imparte en los mismos con anterioridad a la celebración de la pruebas convocadas según las presentes Bases, vendrán obligados a presentarse a las mismas.

CAPÍTULO II
LAS PRUEBAS PARA ACREDITACION DEL PERFIL LINGÜÍSTICO 1 DE LA ERTZAINTZA

Tercera.– Las pruebas.

Las pruebas consistirán en la realización de diversos ejercicios, cuya finalidad será la evaluación del conocimiento de Euskera por parte de las personas aspirantes, tomando como referencia las competencias lingüísticas definidas en el Decreto 30/1998, de 24 de febrero, y se ajustarán a las prescripciones establecidas por el Instituto Vasco de Administración Pública.

Cuarta.– Las pruebas constarán de dos fases.

Fase primera.– Consistirá en una prueba escrita que determine el Tribunal Calificador. Esta fase únicamente tendrá como objeto acreditar el nivel mínimo de conocimientos de euskera para tomar parte en la segunda fase de las pruebas. Dicha prueba se valorará sobre un máximo de 50 puntos, siendo preciso para superarla obtener un mínimo de 37 puntos. La no superación de esta fase determinará la imposibilidad de concurrir a la siguiente.

Fase segunda.– Consistirá en ejercicios de comprensión oral, comprensión lectora, expresión oral y expresión escrita, que determine el Tribunal Calificador. Cada uno de los ejercicios se valorará como «apto/a» o «no apto/a». Para acreditar el Perfil Lingüístico, las

riek zati honek dituen atal guztiak egin beharko dituzte, eta atal horietan guztietan «gai» emaitza lortu beharko dute. Azken emaitza orokorra «ez gai» denean, edozein ataletan lortutako «gai» emaitzek ez dute inolako baliorik izango.

Bosgarrena.– Bigarren zatiko probak egin ahal izateko, aurkeztuko direnek lehen zatiko proba gainditu beharko dute. Hala ere, ez dute lehen zatiko probarik egin beharrik izango eta zuzenean bigarren zatiko probetara deituak izango dira honako kasu hauetariko batean daudenak:

a) Bigarren Oinarriko 2. puntuak aipatzen dituen Ertzaintzako karrerako funtzionarioak izanik 2008ko urtarrilaren 15eko (urtarrilaren 30eko EHAA, 21. zk.) Ebazpenak deitutako Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proben bigarren zatira onartu eta aurkeztu ondoren, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileen lan-baldintzak arautzen dituen indarrean dirauen Akordio Erregulatzailean ezarritako liberazioak oinarritzat harturik, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak emandako ikastaroetan euskararen ezagutza mailarik gorena lortu duten Ertzaintzako funtzionarioak izanik edo Euskarazko Hizkuntza Trebetasunak Bereganatzeko ikastaroan, euskararen ezagutza mailarik gorenenari dagozkion ikasketak egin dituztenak izanik, 2008ko urtarrilaren 15eko (urtarrilaren 30eko EHAA, 21. zk.) Ebazpenak deitutako Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proben bigarren zatira onartu eta aurkeztu ondoren, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenak.

c) 2008ko urtarrilaren 15eko (urtarrilaren 30eko EHAA, 21. zk.) Ebazpenean ezarritakoaren arabera, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatze prozesuan parte hartu eta deialdian aurreikusitako lehen zatiko proba gainditu eta bigarren zatiko probara aurkeztu ondoren Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez zuten Ertzaintzako funtzionarioak.

d) Ertzaintzako funtzionarioa izanik eta 2008ko urtarrilaren 15eko (urtarrilaren 30eko EHAA, 21. zk.) Ebazpenak deitutako Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probaren bigarren zatiaren ondoren eta Ebazpen honek deitutako egiaztatze probaren bigarren zatia baino lehen, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak emandako ikastaroetan, hain zuzen ere derrigortasun data ezarri zaienei edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileen lan-baldintzak arautzen dituen indarreango Akordio Erregulatzailean ezarritako liberazioak direla-eta etortzen direnei zuzenduak daudenetan, euskararen ezagutza mailarik gorena lortu dutenak.

personas aspirantes deberán realizar todas las pruebas de que consta esta segunda fase, y obtener la calificación de «apto/a» en todas ellas. Cuando la calificación global fuera de «no apto/a» el aprobado en alguna destreza lingüística no tendrá efecto alguno.

Quinta.– Para poder acceder a las pruebas de la fase segunda, las personas aspirantes deberán superar la prueba de la fase primera. No obstante, no deberán concurrir a las pruebas de la fase primera, pasando directamente a la realización de las pruebas de la fase segunda, quienes se encuentren en alguna de las circunstancias siguientes:

a) Los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza a que se refiere la Base Segunda n.º 2 que habiendo sido admitidos y presentados a la realización de la segunda fase de la prueba para la acreditación del perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocado por Resolución de 15 de enero de 2008 (BOPV n.º 21 de 30 de enero), no hubieran acreditado el perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza.

b) Los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza que hubieran superado el nivel máximo de conocimiento de euskara en los cursos que imparte la Academia de Policía del País Vasco, en razón a las liberaciones previstas en el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal de la Policía de la Comunidad Autónoma de Euskadi vigente o hayan cursado el nivel máximo de conocimientos de euskera en los Cursos de Adquisición de Destrezas Lingüísticas de Euskera y que habiendo sido admitidos y presentados a la realización de la segunda fase de la prueba para la acreditación del perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocada por 15 de enero de 2008 (BOPV n.º 21 de 30 de enero) no hubieran acreditado el perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza.

c) Los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza que, habiendo concurrido al proceso de acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocado por 15 de enero de 2008 (BOPV n.º 21 de 30 de enero), hubieran asistido a la prueba de la primera fase, prevista en dicha convocatoria, superada la misma y habiéndose presentado a la segunda fase no hubieran acreditado el Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza.

d) Los funcionarios y funcionarias que con posterioridad a la segunda fase de la prueba convocada por 15 de enero de 2008 (BOPV n.º 21 de 30 de enero), y antes de la realización de la segunda fase de la prueba de acreditación que se convoca por la presente Resolución, superen el nivel máximo de conocimientos de euskera en los Cursos de Capacitación Lingüística que imparte la Academia de Policía del País Vasco dirigidos a los funcionarios a los que se les ha asignado fecha de preceptividad o a los que acuden en razón a las liberaciones previstas en el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal de la Policía de la Comunidad Autónoma de Euskadi vigente.

III. KAPITULUA
PROZEDURA

Seigarrena.– Eskabideak.

1.– Dealdi honetan parte hartu nahi duten guztiek ebazpen honetako 2. eranskinean ageri den eskabideorria bete beharko dute eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari bidali.

2.– Eskabideak aurkezteko epea, ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, 15 egun naturalekoa izango da.

3.– Eskabideak aurkeztu ahal izango dira Euskal Herriko Poliziaren Ikastegian (Gasteiz-Irun errepidea, 5. Km, 01192, Arkaute-Araba), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eraren batean; azken lege hau urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bitartez aldatua izan zen.

Zazpigarrena.– Probetara onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak erabakiko du lehen zatiko eta bigarren zatiko probetan onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda. Zerrenda hau Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki taulan argitaratuko da.

Aipaturiko behin-behineko zerrenda argitaratzen den datan Euskal Herriko Polizia Ikastegiak ematen dituen gaikuntza linguistikora zuzendutako ikastaroetan, hain zuzen ere derrigortasun data ezarri zaienei edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileen lan-baldintzak arautzen dituen indarreango Akordio Erregulatzailean ezarritako liberazioak direla eta etortzen direnei zuzenduak direnetan, daudenek probetarako dagokion parte-hartze eskaria egiten badute, lehen zatiko probetara onartuak izango dira, dealdi honen bosgarren oinarrian ezarritakoa kaltetu gabe.

Halere, bigarren zatia egikaritu aurretik aipaturiko ikastaroan euskara ezagutza mailarik gorenena lortuz gero, bosgarren oinarriko d) atalaren arabera, bigarren zatira onartuak izango dira, lehenengo zatian ateratako emaitza kontuan izan gabe.

Zortzigarrena.– Onartu eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak.

Onartu eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bost egun naturaleko epea izango dute interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Aipatutako erreklamazioak, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari bideratuko zaizkio.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO

Sexta.– Solicitudes.

1.– Las personas que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán formular solicitud mediante el impreso que figura como anexo 2 de esta Resolución, dirigida a la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

2.– El plazo para formular solicitudes será de 15 días naturales, a contar desde el siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Las solicitudes podrán presentarse directamente en la Academia de Policía del País Vasco (Ctra. Gasteiz-Irun, km 5, 01192 Arkaute – Álava), o bien a través de cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por Ley 4/1999, de 13 de enero.

Séptima.– Relación provisional de personas admitidas y excluidas.

Una vez finalice el plazo para presentar solicitudes, la Directora de la Academia de Policía del País Vasco aprobará la relación provisional de personas admitidas y excluidas de las pruebas de la primera y segunda fase, que se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

Las personas que a la fecha de publicación de la citada relación provisional estuvieran realizando algún Curso de Capacitación Lingüística que imparte la Academia de Policía del País Vasco, dirigido a los funcionarios a los que se les ha asignado fecha de preceptividad o a los que acuden en razón a las liberaciones previstas en el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal de la Policía de la Comunidad Autónoma de Euskadi vigente serán admitidas a las pruebas de la primera fase siempre que realicen la correspondiente solicitud de participación, sin perjuicio de las disposiciones de la Base Quinta de la presente convocatoria.

No obstante, si antes de la realización de la segunda fase de la prueba superan el nivel máximo de conocimientos de euskera en dichos cursos, conforme al apartado d) de la Base Quinta, podrán acceder a la segunda fase de la prueba con independencia del resultado obtenido en la primera fase de la prueba.

Octava.– Reclamaciones a la relación provisional de personas admitidas y excluidas.

Las personas interesadas podrán formular reclamaciones a la Resolución por la que se apruebe la relación provisional de personas admitidas y excluidas, dentro del plazo de cinco días naturales, a contar desde el día siguiente al de la publicación de aquella Resolución en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco. Dichas reclamaciones deberán dirigirse a la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

Aipaturiko ebazpenean, probak zuzendu eta neurtuko dituen Epaimahaiaren izendapena, lehen zatiko proben eguna, ordua eta tokia adieraziko dira.

Bederatzigarrena.– Onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda.

1.– Aurreko oinarrian aipatutako bost eguneko epea amaitu ondoren, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak argitaratuko du, ebazpen baten bidez, probak egiteko onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda. Aipaturiko ebazpen hori Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki taulan argitaratuko da.

Lehen zatiko probak ezin izango dira burutu, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda hori onartu aurretik.

Hamargarrena.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Probetarako Epaimahai Kalifikatzailea berezitasun printzipioan oinarrituta izendatuko da, eta karrerako funtzionario edo langile finkoek osatuko dute. Horietariko gehienek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lanpostuei dagokien 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izango dute.

Epaimahai Kalifikatzailea mahaiburu batek eta hiru mahaikidek osatuko dute. Era berean, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko langile batek idazkaritza funtzioak beteko ditu. Beti ere, Epaimahai honetan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkaria izango da.

2.– Organo kolegiatuen funtzionamenduaren arautegiak zuzenduko du Epaimahaiaren jarduera. Dena den, Epaimahaiak egoki ikusten dituen laguntzaileak izendatu ahal izango ditu, behar dituen aholkularitza eta laguntza teknikoa jaso ditzan.

3.– Dealdiaren prozesuan dauden probak garatzea, zehaztea eta ebaluatzea Epaimahai Kalifikatzaileari dagozkio, Epaimahai Kalifikatzaile honek autonomia osoz jokatuko du, prozeduraren objetibotasunez arduratuko da eta deialdiaren oinarriak bete daitezen arduratuko da.

4.– Epaimahaiaren erabakiak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko iragarki taulan argitaratuko dira.

5.– Epaimahai Kalifikatzaile honetan parte hartzeagatik legez ezarritako lansariak jasoko dira.

Hamaikagarrena.– Probak garatzea.

1.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak edo Epaimahai Kalifikatzaileak, eskabide kopurua, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren baliabideak eta zerbitzu beharrak kontuan hartuta, probak egun edo leku ezberdinetan egitea erabaki ahal izango du.

En dicha Resolución se efectuará el nombramiento del Tribunal encargado de valorar las pruebas y se señalará la fecha, hora y lugar de realización de las pruebas de la primera fase.

Novena.– Relación definitiva de personas admitidas y excluidas.

1.– Finalizado el plazo de cinco días a que se refiere la base anterior, la Directora de la Academia de Policía del País Vasco dictará Resolución por la que se apruebe la relación definitiva de personas admitidas y excluidas de las pruebas. Dicha Resolución se hará pública en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

Las pruebas de la primera fase no podrán celebrarse antes de la aprobación de la relación definitiva de personas admitidas y excluidas de las pruebas.

Décima.– El Tribunal Calificador.

1.– El Tribunal Calificador de las pruebas será designado conforme al principio de especialidad y estará integrado por personal funcionario de carrera o personal laboral fijo que tenga mayoritariamente acreditado el Perfil Lingüístico 4, de aplicación a los puestos de trabajo de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Este Tribunal Calificador estará integrado por un Presidente/a y tres Vocales y asimismo, un miembro del personal de la Academia de Policía del País Vasco ejercerá las funciones de secretario. En todo caso, el Instituto Vasco de Administración Pública dispondrá de representación en este Tribunal.

2.– La actuación del Tribunal se regirá por la normativa reguladora del funcionamiento de los órganos colegiados y, en cualquier caso, podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personal asesor o especialista que le preste el auxilio técnico y asesoramiento que fueran necesarios.

3.– El desarrollo, determinación y evaluación de las pruebas de que consta el proceso que se convoca, corresponderá al Tribunal Calificador, que actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las Bases de la Convocatoria.

4.– Los Acuerdos del Tribunal se harán públicos en el Tablón de Anuncios de la Academia de Policía del País Vasco.

5.– La participación en el presente Tribunal Calificador dará lugar a la percepción de las indemnizaciones legalmente previstas.

Undécima.– Desarrollo de las pruebas.

1.– En atención al número de solicitudes, a las disponibilidades de la Academia de Policía del País Vasco y a las necesidades de servicio, la Directora de la Academia de Policía del País Vasco o, en su caso, el Tribunal Calificador, podrán disponer que las pruebas se celebren en distintos días o en distintos lugares.

2.– Lehen zatiko probak burutu ostean, Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio, Akordio bidez, behin-behineko emaitzak onartzea, «Gai» edo «Ez gai» gisan agertuta. Era berean, aipaturiko akordioan zehaztuko dira, bigarren zatiko proben egikaritzaren data, tokia eta ordua.

Behin-behineko emaitzok argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita, interesatuek bost egun naturaleko epea izango dute Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean erreklamazioak aurkezteko.

Epe hau amaituta, erreklamaziorik aurkeztu ez duten probagileen emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta aurkeztutako erreklamazioak Akordio bitartez Epaimahai Kalifikatzaileak ebatziko ditu. Akordio honen aurka, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren aurrean gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, akordioa argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Bigarren zatia egikaritzeko datarako aurkezturiko erreklamazioak ebatzi ez badira, erreklamazioren bat aurkeztu duten izangaiek bigarren zatia burutu ahal izango dute, nahiz eta erreklamazioak soilik balioa izango duen, baldin eta hautagaia azkenik onartua bada.

3.– Bigarren zatiko probei dagokienean, beraien aurrean jarri litezkeen erreklamazioen epe eta organo eskudunentzako oinarri honen bigarren atalean ezarritakoa hartuko da kontuan.

Hamabigarrena.– Behin betiko emaitzen argitarapena.

Bigarren zatiko proben behin betiko emaitzak onartzen dituen Akordioaren erreferentzia, 1. hizkuntza-eskakizuna gainditu dutenen hautagaiei dagokiona, Euskal Herriko Ikastegiko Zuzendaritzari aurkeztuko zaio. Akordio hori Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratuko du.

Hamahirugarrena.– Oinarri-arau hauetan aurreikusten ez diren guztietan, Ertzaintzan Euskararen Normalkuntza arautzen duen otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua aplikatuko da.

2.– Realizadas las pruebas de la primera fase, corresponderá al Tribunal Calificador aprobar mediante Acuerdo las calificaciones provisionales de las mismas, las cuales se expresarán en la forma de «apto/a» o «no apto/a». Asimismo, en dicho Acuerdo se determinarán la fecha, lugar y hora de las pruebas de la segunda fase.

A partir del día siguiente al de la publicación de dichas calificaciones provisionales, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 5 días naturales para formular reclamaciones ante el Tribunal Calificador.

Finalizado ese plazo, las calificaciones de las personas examinadas que no hubieran presentado ninguna reclamación se harán definitivas, y las reclamaciones presentadas se resolverán mediante Acuerdo del Tribunal Calificador. Frente a este Acuerdo, se podrá interponer recurso de alzada ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Si para la fecha de realización de la segunda fase no se hubiesen resuelto las reclamaciones presentadas, los aspirantes que hubiesen presentado alguna reclamación podrán realizar la segunda fase de la prueba, si bien ésta sólo tendrá validez en el caso de que el aspirante sea finalmente admitido.

3.– Para las pruebas de la segunda fase, en relación a los plazos de reclamaciones y órganos ante las que se puedan plantear las mismas, se estará a lo dispuesto en el apartado 2 de esta Base.

Duodécima.– Publicación de los resultados definitivos.

La referencia al Acuerdo por el que se aprueban los resultados definitivos de las pruebas de la segunda fase, relativos a los funcionarios y funcionarias de carrera de la Ertzaintza que hayan acreditado el Perfil Lingüístico 1, se elevará a la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco, que lo publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Decimotercera.– En todo lo no previsto en las presentes Bases, será de aplicación el Decreto 30/1998, de 24 de febrero, regulador del proceso de normalización del Euskera en la Ertzaintza.

2.– ERANSKINA / *ANEXO 2*

Agiri hau izenpetzen duenak, Ertzaintzaren 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA lortzeko prozesuan parte hartzea eskatzen dizu. Horretarako deialdia, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak 2008ko urriaren 10eko Ebazpenean iragarri zuen. Ondorio horietarako, honako hau dio:

Quien suscribe ruega a V.I. tenga a bien considerarle aspirante para tomar parte en las pruebas de acreditación del PERFIL LINGÜISTICO 1 de la Ertzaintza, cuya convocatoria fue anunciada por Resolución de 10 de octubre de 2008 de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, haciéndose constar a dicho efecto lo siguiente:

ERTZAINTZAREN 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO PROBETAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

SOLICITUD PARA LA REALIZACION DE PRUEBA DE ACREDITACION DEL PERFIL LINGÜISTICO 1 DE LA ERTZAINTZA

ABIZENAK/*APELLIDOS*	IZENA/*NOMBRE*
ERTZAIN ZK. / *N.º PROFESIONAL*	

……(e)n, 2008ko ……aren ……(e)(a)n

En ……, a …… de …… de 2008

Iz./*Fdo.*:

EUSKAL HERRIKO POLIZIAREN IKASTEGIKO ZUZENDARIA	*ILMA. SRA. DIRECTORA DE LA ACADEMIA DE POLICIA DEL PAIS VASCO*